

DIRULAGUNTZA DEIALDIA, DURANGOKO KIROL ELKARTEENTZAT: FITXAK ETA ARBITRAJEAK

1. artikulua. Xedea

Durangoko udalerriko kirol-erakundeek 2022-2023 denboraldian egin behar dituzten gastu finkoak eramaten laguntzeko asmoz Durangoko Udalak norgehiagoka modura deitutako diru-laguntzen oinarri arautzaileak ezartzea da deialdi honen helburua, Durangoko Udalaren diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzeko ordenantzaren 8. artikuluan ezarritako edukiarekin bat.

2. artikulua. Izaera eta erregimen juridikoa

Azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak arautuko du diru-laguntza, lege horren 22.1 artikuluaarekin bat etorruta. Aipatutako diru-laguntza Durangoko Udalaren 2023ko Aurrekontuetan aurreikusita dago, 2022-2024 Diru-Laguntzen Plan Estrategikoaren barruan, 2021eko abenduaren 20ko Osoko Bilkuran onetsia, eta bertan informazio hau dago:

Kodea: 4.3410.1.FFA

Diru-laguntza: Kirol elkarteentzako fitxa eta arbitraje gastuetarako diru-laguntza deialdia

Zenbatekoa: 30.000€

Partida: 41.3410.48101

Ondoko hauek dira diru-laguntza jaso dezaketen kontzeptuak:

- a) Elkarte horietako kideek txapelketetan parte hartzeko behar dituzten federazio-fitxak, (betiere, kide horiek Durangoko udalerrian errolatuta badaude).
- b) Arbitraje-dietak.

Atal honetatik kanpo geratuko da bere-beregi eskola-kiroletako arloa.

3. artikulua. Onuradunak

Kirol-elkarteek, arestian adierazitako diru-laguntza horien onuradun izateko, Eusko Jaurlaritzako elkarteen erregistroan izena emanda eduki, eta euren egoitza soziala Durangon izan beharko dute.


Durangoko Udalaren diru-laguntza izendunak jasotzen dituzten elkarteek ezingo dituzte deialdi honetako diru-laguntzak eskuratu.

4. artikulua. Dokumentazioa aurkezteko lekua

Eskariak Udaleko **egoitza elektronikoan** aurkeztu behar dira.

Eskariari dokumentazio hau erantsi beharko zaio:

- a) Eskaera normalizatua Durangon errolatutako kirolarien zerrendarekin.
- b) Dagokion federazioko ziurtagiria, elkarteak guztira zenbat fitxa egin dituen kategoriak



adierazita.

Aurreko urteetan diru laguntza eskatu ez zuten entitateek, edo bere datuetan aldaketak izan dituztenek, ondorengo agiriak ere aurkeztu behar dituzte:

- a) Entitate eskatzailearen estatutuak.
- b) Eusko Jaurlaritzako elkarte eta entitateen erregistroaren inskripzio-egiaztagiria.
- c) Identifikazio Fiskalaren Kodea.
- a) Elkartearen ordezkaritza egiaztatzen duen agiria.

3.000 eurotik beherako diru laguntzak jasotzeko, erakundearen ordezkari baten zinpeko aitorpena, erakundeak bere zerga betebeharrak, Bizkaiko Foru Ogasunarekin egunean dituela adierazten duena. Bestalde, 3.000 eurotik gorako diru-laguntzetarako, egoera hori egiaztatzen duen agiria.

Erakundeak ez du zorrik izango Durangoko Udalarekin ezta Segurtasun Sozialarekin ere, nahiz eta honi dagokionez, ez den egiaztagiririk aurkeztu behar.

Edozein kasutan, aurreikusitako ekimenari dagokion dokumentazioaz gain, entitate eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal zaie aurkeztutako ekimena behar bezala baloratu ahal izateko.

5. artikulua. Epea

Eskariak aurkezteko epea 25 lanegunekoa izango da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar laneguneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan. Halaber, jakinaraziko zaio, hala egiten ez badu, eskarian atzera egindakotzat joko dela, eta hala ebatziko da 2015eko urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozeduraren 39/2015 Legearen 68. artikulua aurreikusten dituen terminoen arabera eta, aintzat hartuta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23.5 artikulua ezartzen duena.


6. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa

1. Erakunde eskatzaileen artean banatuko den diru-kopurua hogeita hamar mila (30.000) euro da, 41.3410.48101 aurrekontu-partidari dagokiona.

2. Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira dena delako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, dirulaguntza murriztu egingo litzateke. Gain finantzaketa gerora emango balitz, eta dirua itzultzeko beharizanen bat baino gehiago izanez gero, dena delako pertsona edo erakunde onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Durangoko Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

7. artikulua. Balioztatze-irizpideak

Ondoko hauek izango dira:



- a) eta b) kontzeptuetarako emango den zenbatekoa (arlo horietarako aurkeztu den aurrekontuaren arabera banatuko da.
- Dirulaguntza banaketa egiteko durangar kirolarien fitxen proportzionaltasuna hartuko da aintzat.
- Lortutako portzentajea 1. artikuluan agertutako a eta b kontzeptuetara aplikatuko zaio.
- Gehienezko diru laguntza 4.000 eurokoa izango da elkarte onuradun bakoitzeko.

8. artikulua. Instrukzioa eta ebazpena

Sail eskudunaren informe teknikoa aztertu ostean, eta gazteria eta kirol arloko argibide batzordearen proposamenari ekinez, eskariak alkateordearen ebazpen bidez egingo dira, gehienez ere, hiru (3) hilabeteko epean eskariak aurkezteko azkenengo egunetik zenbatuta.

Aipatutako epea igaro ostean ebazpenik jaso ezik, ulertu behar da eskaria gaitzetsi egin dela, gerora egin daitekeen ebazpenaren kaltetan izan gabe.

Behin-behineko ebazpena eginda, 3.000 eurotik gorako diru laguntza jasotzen duten elkartei Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren agiriak eskatuko zaizkio. Agiriok 10 lanegunen epean aurkeztu beharko dituzte eskatzen direnetik.


9. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea

Diru-laguntzaren %80a jakinarazpena egin eta hurrengo hilabeteen ordainduko da, eta honetarako ez zaie inongo bermerik eskatuko onuradunei. Gainerako %20a, eman deneko diru-laguntza justifikatu ondoren ordainduko da. Eta kontuan izango dira, halaber, 11. artikuluan aipatzen diren aspektu guztiak.

10. artikulua. Betebeharrak

Deialdi honetako dirulaguntzak jaso dituzten entitate onuradunek, Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen ordenantzen 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte. Besteak beste, ondorengo hauek:

- a) Diruz lagundu d(ir)en jarduera(k) egitea.
- b) Diru-laguntza emateko argudiatutako gastuak egin direla egiaztatzea, oinarri hauetan adierazitako moduan eta epean.
- c) Diruz lagundutako jarduera betetzeko baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea. Durango Kirolak erakunde autonomoak ezarritako baldintzak betetzea, elkarteak erakundearen instalazioak erabiltzen baditu.
- d) Diru-laguntza eskaini duen Durangoko Udalak egin beharreko egiaztatze-jarduketei trabarik ez jartzea, ez eta eskuhartzailetzari dagozkion finantza-kontrolako jarduketei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduketei edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketei ere. Horrez gain, laguntza eskainiko dute ikerketa-gai diren lokaletara sartzeko edota bertako dokumentazioa eskuratzeko askatasuna eskainiko dute, baita dokumentuen kopia egiteko ere.



- e) Diruz lagundutako jarduerari buruz, entitate onuradunak ezinbestean erabiliko du euskara edo euskera eta gaztelania argitaratutako iragarki, ohar, jakinarazpen eta abarretan. Gainera, diruz lagundutako jardueran diharduela egiaztatzerakoan, hizkuntza-betebehar hori betetzen duela frogatu beharko du onuradunak.
- f) Durangoko Udala sartzea jardueraren babesle moduan, bai idatzizko edo argitalpenetan, eta bai beste komunikabide motetan egindako iragarkietan.
- g) Durangoko Udalari baimena ematea diru-laguntzaren funtsak behar bezala erabili eta erabili direla egiaztatzeko.

11. artikulua. Dirulaguntza justifikatzea

Dirulaguntza justifikatzeko, entitate onuradunak, **2024ko otsailaren 29a** azken eguna izanez, jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- a) Federazio-fitxa egiteko, dagokion federazioari ordaindutako zenbatekoen egiaztagiria, baita federatuen zerrenda edo kirolari horiek federatuta daudela adierazten duten egiaztagiria ere. Dokumentazio hori guztia aurkeztu beharko da 1. artikulua a) idatz-zatiko kontzeptuak jasotako diru-laguntza nola erabili den egiaztatzeko.
- b) Diruz lagundutako 1. artikulua b) idatz-zatian jasotako kontzeptuari dagokionez, kategoriak, arbitraje bakoitzeko ordaindutako diru-kopuruen gainean Federazioak egindako egiaztagiria.
- c) Aurreko kirol denboraldian diru-laguntzari esker, egindako ekintzetan, programen, argitalpenen, iragarki-kartelen eta dokumentazio grafiko zein idatzizko guztiaren ale bana. Horietan guztietan, jarduerak Durangoko Udaleko babesa duela adierazi beharko da bere-beregi.

12. artikulua. Dirua itzultzea


Justifikatzeko betebeharraren konpromisoak edo diru-laguntza honetan jasotako beste batzuk betetzen ez badira, itzulketa-prozedura izapidetuko da, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 41. eta 42. artikuluetan eta hura garatzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren 91. artikuluan ezarritakoaren arabera.

13. artikulua. Araudi osagarria

Diru-laguntza honek ezartzen ez duenari dagokionez, honako lege testuak hartuko dira aintzat: Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza; diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra; 887/2006 Errege Dekretua eta toki erregimeneko araudi bateragarria

14. artikulua. Datuen babesa

Durangoko Udalak kirolaren eta kirol-jardueren antolaketa eta sustapenaren eta erabilera publiko-ko kirol-ekipamenduen kudeaketaren esparruko datuak tratatzen ditu, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen arabera. Datu pertsonalak Durango Kirolak toki-erakunde autonomoari eta arloan eskumena duten beste Administrazio Publiko batzuei jakinarazi ahal izango zaizkie, hala nola Eusko Jaurlaritzari



DURANGO
Udala • Ayuntamiento



eta finantza-erakundeei. Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta datuon tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko eskubidea ere, Udalaren helbidera edo dpo@durango.eus helbide elektronikora komunikazio bat bidalita. Halaber, informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu gardentasun-ataria: www.durango.eus